

## Gazte Ikertzaileen CIBER-BBN saria Javier Plou-rentzat

### 2021ean gazte ikertzaileek Biomaterialen arloan argitaratutako artikulu onenaren CIBER-BBNren saria

30 urtetik beherako ikertzaileen multzoan, 2021ean Biomaterialen arloan argitaratutako artikulu onenaren saria eman dio [CIBER-BBN](#)-k (Bioingeniaritzako, Biomaterialetako eta Nanomedikuntzako Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroak) CIC biomaGUNEko doktoratu ondoko ikertzaile Javier Plouri ([Luis Liz-Marzán irakaslea buru duen Bionanoplasmonika taldeko](#) kidea).

Artikuluaren izenburua hau da: [“Preventing Memory Effects in Surface-Enhanced Raman Scattering Substrates by Polymer Coating and Laser-Activated Deprotection”](#). *ACS Nano* aldizkari entzutetsuan argitaratutako artikulu horretan, irtenbide bat ematen zaio ingurune konplexuetan SERS (gainazalean hobetutako Raman espektroskopia) bidezko neurketak egitean SERS memoria-efektu deitzen zaion fenomeno batek eragiten duen arazo bati. Estrategia horren bidez, leiho mikrometrikoko batzuk sortzen dira laginari gainazal plasmonikoa ikusgai jartzeko, eta, hala doitasun handiagoz monitorizatu ahal izan dira tumore-ingurunean denboran zehar gertatzen diren aldaketak.

CIBER-BBNk bost sari eman ditu Bioingeniaritzaren, Biomaterialen eta Nanomedikuntzaren arloetan; horien artean dago Plou doktoreari emandako saria. Argitalpenak ebaluatzeko, kontuan hartu dira artikuluak zer eragin zientifikoa izan duen, lanak zer garrantzi zientifiko izan duen, ikerketak zer originaltasun izan duen eta hautagaiak argitalpenari zer ekarpen egin dion. Bioingeniaritzaren, Biomaterialen eta Nanomedikuntzaren arloetan CIBERi atxikitako eta CIBERek kontratatutako ikertzaile guztiek parte har dezakete ekimen honetan. Izan ere, CIBER-BBNren helburua da ikertzaile gazteek zentroaren lehentasunezko ikerketa-ildoetan egiten duten ahalegina aitortu eta saritzea.

Artikuluaren erreferentzia:

Plou J., Charconnet M., Garcia I., Calvo J., Liz-Marzan L.M.

Preventing Memory Effects in Surface-Enhanced Raman Scattering Substrates by Polymer Coating and Laser-Activated Deprotection.

[ACS Nano 2021, 15, 8984-8995](#)